

JUANTXO-TXIKI, INBENTORE ZORAGARRI

Zineko pantalla zoragarri bat ba-dau umeak bere irudimenean. Bein ikusitakoa, berriro ikusi aal izateko aalmenak badiu irudimen aretan. Barrero ikusi oso-osorik naiz zatika. Eta zati orreikaz gauza barriak sortarazi.

Orra Juantxo-txikiren bi zeregin:

ikusitakoak berrikusi

eta ikusitakoekaz barriak sortarazi.

* * *

Zelan egiten dau sortarazte ori? Zaarrekaz barriak zelan sortzen dauz? 'Rompecabezas' baten antzera jokatuta: bein ikusitako gauza desberdiñakaz, puskak eta zatiak alkarri lotuta, sortzen dauz irudi barriak. Gero, irudi orreik eta begietatik barrura etorri jakozanak, kanpokoak, biak nastetan dauz.

Egiak alde egin dautso.

Ez da konturatzen egi ori kanpotik etorri jakon, ala bere barruan sortutako izakiren bat dan. Ortik datorkio Juantxo-txikiri guzurak esaten astea. Juantxo-txiki, gezurti.

* * *

Inbentatzeko erreztasunak be badiu Juantxo-txikik; begien aurrean ez ditunak ikusteko be bai. Bere barruko irudimenearen pantalla orretan ikusten ditu kanpotik ikusten ez diranak: sukaldeko aulki zaarra, autobusa izango da bere irudimenean eta itxuragabeko egur zati bat, barealdiko itsas-ontzia.

Erreztasuna dau artarako.

Bere andere, andrako, panpin eta muñekoak jan da lo egiten dabe; poza eta miña asmau be bai. Berak bere irudimenean bizi-arazten ditu.

* * *

Guzurrik esaten ba'dautzu Juantxo-txikik, ez guzurtizat artu emen idatzitakoak begien aurrean artu barik. Guzurra ala bere irudimeneko naastea ote dau?

Injustizirik, ez.

* * *

Sinistuko dautzuz esandako guztiak Juantxo-txikik. Berarentzat ez dago ezer eziñik: sorgiñak, ireltxoak, prakagorriak, lamiñak... guztiak dira beretzat izaki bizi-biziak.

Ez eiozu guzurrik esan.

Diranak diran lez esan: egiak egi lez, kontuak kontu lez. Egiak eta kontuak ez nastau. Kontua egizat emoten ba dautsozu, biak nastetan dauz guzurra esanez. Egunen batean konturatuko da guzurra esan zeuntsola. Egun aretatik ez dautzu ez konturik ez egirik geiago sinistuko.

Bere gurasoengan eban siniste oso-osea bat-batean osorik galduko dau.

* * *

Jolasak oso jakoz gogoko Juantxo-txikiri; baiña, jolasetan dana osorik artzerik ez jako ainbeste gustatzen, asmatzaille egiten ez badau. Naiago dau bere aldetik zertxo bat ipiñi bearra jolaserako. Amar milla jostallu polit geldoekin, osorik egiñakin baiño obeto dabil Juantxo-txiki upel zaar baten kurpillarekin korrika kalean zear...

* * *

Bere buruko irudimenak oso bizirik bizi ditu Juantxo-txikik. Bizitasun orretik sortzen jako, bere barneko irudimenak egiteko irrika. Geuri be beste orrenbeste gertatzen jaku gure buruko gogaketak egintzetan mamitzeko irrika sortzen jakunean, geure buruaren jabe izan arren. Ori guri gertatzen ba jaku, geiago oraindik bere buruaren jabe ez dan umetxoari.